

FITXA: 239 - - Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2026-2028 aldirako dirulaguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duten oinarriak.

Nori zuzendua: Dirulaguntza hauek eskatu ahal izango dituzte deialdi honetan deskribatutako dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzen dituzten ondasunen jabe diren pertsona fisiko eta juridikoek, edo irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko publiko zein pribatuek.

Deialdia: EHAA - Euskal Herriko **Deialdiaren data:** 2026/05/29
Agintaritzaren Aldizkaria

Sarbide-esteka:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0034812>

Erreferentziazko araudia: AGINDUA, 2026ko maiatzaren 20koa. -
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/05/2602316e.pdf>

Eragin eremuak: Kultur ondarea

Zenbatekoa: 2.500.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/05/30

Aurkezteko azken eguna: 2026/06/30

Aurrerakina: Ez da zehaztu.

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Agindu honetan aurreikusitakoaren arabera emango diren dirulaguntzen gehieneko muga zenbateko hauetatik txikiena izango da: 250.000 euro edo diruz lagundu daitekeen zenbatekoaren % 100, salbu eta hirigune historikoetan jabetzak lotizatzeko araubidea mantentzeko bada, kasu horretan % 15 izango baita.

Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2026-2028 aldirako dirulaguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duten oinarriak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- a) Kultura-ondareari balioa ematea, hau da, kultura-ondasunak ezagutzeko, balioa emateko, aitortzeko eta erabiltzeko jarduerak.
- b) Kultura-ondarea hedatzea, hau da, sentsibilizazioaren, gizarteratzearen eta ondarearen interpretazioaren bidez ondare-balioen berri ematea.
- c) Babes berezi edo ertaineko kultura-ondasun higiezinak edo haien ingurunea desjabetzeko finantzaketa. Kategoria honetan, toki-administrazioak ondasun horiek eta haien ingurunea eskuratzea baino ezin izango da lagundu diruz. Toki-administrazioetat hartzen dira udalak, mankomunitateak, kuadrillak, kontzejuak eta toki-administrazioa osatzen duten gainerako entitateak. Desjabetzearen helburua izango da deklarazioan sartzen den kultura-ondasunari edo haren zati esanguratsu bati balioa ematea.
- d) Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dauden kultura-ondasunak edo babestuak izateko espedienteak irekita dutenak zaindu, aberastu eta babesteko beste edozein jarduera; betiere, jarduera hori bat baldin badator 6/2019 Legean jasotako helburuekin, eta ez badago jasota Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren beste agindu espezifiko batzuetan.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagunduko diren jarduerak 2026ko ekitaldian hasi beharko dira edo hasita egon beharko dute, eta, beranduenik ere, 2028ko azaroaren 30a baino lehenago amaitu beharko dira.